



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 21a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepide mapa” egin dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko gastu publikoa handitu dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalgune-ko osasun etxeak zabal ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mutiloa-Badostainen kontsultak arratsaldeko txandetan zabalteko konpromisoa har dezan, herritarrei arreta egiteko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako eta Errioxako jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defenda dezan. José Luis Etxegarai Andueza foru parlamentari jaunak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan. Akats zuzenketa (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, erradiologia mugikorreko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (14. or.).

- Galdera, Zentro Onkologikoa eraikitzeko eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (15. or.).
- Galdera, ikastetxe, herri eta ereduaren araberako matrikulazio datuei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Xabierko Frantzisko Jatsukoaren Aretoko ikuskizunaren gastuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (17. or.).
- Galdera, 2005eko abenduaren 4an misiolariari eginiko omenaldiari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (17. or.).
- Galdera, Argentinako eta Txileko nafarren etxeetako topaketen gastuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (18. or.).
- Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (18. or.).
- Galdera, Audenasak TeleTac txartelak ezartzeko asmorik ba ote duen jakitekoa, foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribas andreak egina (19. or.).
- Galdera, abuztuaren 6rako aurreikusita dagoen misiolarien aldeko omenaldirako aurrekontuaren gastuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (19. or.).
- Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren bosgarren mendeurrenako itxiera ekitaldirako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (20. or.).
- Galdera, Parisen eginiko Marc-Antoine Charpentierren lanen kontzertuko gastuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (20. or.).
- Galdera, Boliviako San Ignacio de Moxos orkestraren kontzertuko aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (21. or.).
- Galdera, Juan Andrés Jiménez-en “La vida de un hombre santo” lanaren estreinaldirako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (21. or.).
- Galdera, Pablo Sarasate Orkestrak, Iruñeko Orfeoak eta bakarlari batzuek emanen duten kontzertu sinfonikorako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (22. or.).
- Galdera, Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestrak Lorenzo Ondarraren Te Deum mezaren estreinaldia egiteko dagoen aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (22. or.).
- Galdera, Espainiako Irrati Telebistako Orkestrak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (23. or.).
- Galdera, Parisko Anaiki Abesbatzak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (23. or.).
- Galdera, Frantzisko Xabierkoaren antzerki lana taularatzeko aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (24. or.).
- Galdera, Afrika, India eta Japoniako folklore-taldeen ekitaldietarako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (24. or.).
- Galdera, foru erkidegoko abesbatza eta musika banden ekitaldietarako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (25. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren otsailaren 15eko 36/2006 Foru Aginduan galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (25. or.).
- Galdera, herrilan zuzendari nagusiaren otsailaren 17ko 356/2006 Ebazpenean galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (27. or.).
- Galdera, “Xavier-arte” erakusketarako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Museoa egiten den grabatu japoniarrei buruzko erakusketarako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (30. or.).
- Galdera, “El mundo alrededor de Javier” izeneko kongresuaren antolaketa eta hartarako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (30. or.).
- Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetari buruz Mexiko, Goa eta Tokion egitekoak diren kongresuen aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (31. or.).

- Galdera, “Francisco de Javier. Regreso y Encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia” izeneko kongresuaren aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (31. or.).
- Galdera, “Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón” izeneko dokumentalaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (32. or.).
- Galdera, “La huella universal de Francisco de Javier” ikus-entzunezkoaren aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (33. or.).
- Galdera, RTVEko orkestraren ekainaren 30eko kontzerturako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (33. or.).
- Galdera, “San Francisco Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (34. or.).
- Galdera, V. mendeurrenaren aipamena egiten duten orrialde-markagailu egutegidunen ediziorako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (34. or.).
- Galdera, liburutegi publikoetan Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio-guneak parartzeko aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (35. or.).
- Galdera, Xabierren turismo-bulego bat instalatzearen kostuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (35. or.).
- Galdera, V. mendeurrenari buruzko publizitate-kanpaina orokorrerako aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (36. or.).
- Galdera, “Javier 2006” web gunearen kostuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (37. or.).
- Galdera, Xabierren ospatze-urtean zehar guneak eta ekipamenduak prestatzeko aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (37. or.).
- Galdera, gora jotzeko errekurtsioak Administrazio Auzitegian behar bezala tramitatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (38. or.).
- Galdera, Administrazio Auzitegian aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak epean ebazteari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (39. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako 2006ko otsailaren 11n kargua utzi zuen kidearen ordeztasun Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kidea hautatzeko arauak (41. or.).
- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko. Izendapen proposamena (42. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioak osasuna babesteko eskubidea dela-eta agindutakoa Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen bitartez garatu zen. Garapen hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 53., 54. eta 58. artikuluetan Nafarroari osasun eta higiearen alorretan, bere eskubide historikoak direla-eta, aitortzen zaizkion eskumenen barruan egin zen. Eskumen horiek dira, batetik, Estatuaren oinarrizko legedia garatu eta betetzea, barne osa-

sunaren eta higie eta gizarte-segurantzaren alorretan, eta, bestetik, Estatuaren legedia betetzea farmazien eta farmazia-produktuen alorrean.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren esparruan eman zen 10/1990 Foru Legea, eta horren xedea da foru erkidegoko administrazio publikoen eta entitate pribatuen ardura diren osasunaren, higiearen eta osasun laguntzaren arloko jarduerak arautzea, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoa sortzea eta hura foru administrazioaren zentro eta osasun zerbitzu bereki guztien eta hari eskualdatutakoen kudeatzaile gisa zehaztea, eta, azken batean, osasunari buruzko konstituzioaren aurreikuspenen araupetze orokorra egitea, foru erkidegoan bizi diren herritar guztiek osasuna babestua izateko daukaten eskubidea gauzatze aldera.

Foru lege horren zioen azalpenak berak adierazten duenez, osasun sistemako zerbitzuak hartzeari dagokionez, aukera berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen da. Printzipio hori, betiere, ez da mugatu behar zerbitzuak fisikoki hartze hutsera. Izan ere, printzipio horren gauzatzea administrazio boki ere lortu beharra dago; hain zuzen ere, zerbitzu hori unibertsala bihurtuz, herritarrei denboraren eta diruaren kostuengatik ezarritako oztopoak deuseztatuz eta herritar guztientzat aukerak kultura ikuspegitik berdinduz eta, denentzat berdinduz, era berean, osasun laguntzaren kalitatebermea. Aipatu foru legeak ondoko printzipioak ezartzen ditu: efizientzia soziala, decentralizazioa, osasun laguntzaren kalitatea eta humanizazioa, parte-hartzea, askatasuna eta baliabideen plan-gintza eta erabilera; betiere, printzipio horiek osasun kudeaketako sistema moderno baterantz bideratuko dira, halako moduan non osasun zerbitzuen jardun autonomo eta parte-hartzailearen bitartez osasun publikoaren arduradunek eskura dituzten osasun baliabide guztiak modu efiziente- an erabiliko diren.

Printzipio horiek ezarrita dauden arren, Osasunari buruzko foru legeak indarra hartu zuenetik

iragan diren urtetan, osasun sistemaren bilakaera ez da izan nahi genukeen bezain egokia. Herritarrei laguntza emateko arazoak, profesionalak eta osasunaren erabiltzaileek salatu izan dituztenak, bereziki garrantzitsuak dira oinarrizko osasun laguntzaren arloan, zeina arau horretan definitzen baita jarduera medikoen eta laguntzazkoen multzoa biltzen duen osasun sistemaren oinarri gisa; hain zuzen ere, norberak zuzenean hartzen dituenak, osasuna sustatzekoak, gaixotasunei aurrea hartzekoak eta zerbitzu sozio-sanitarioen sare publikoaren koordinatuta gizarteratzekoak.

Oinarrizko osasun laguntza osasun sistemaren benetako ardatza da; osasun arazo gehien-gehienak hartzen eta konpontzen ditu; herritarrentzat irisgarria gertatzen da, denentzat berdina eta efizientea, eta gainera hurbilena eta konfiantzazkoa dute. Argi dago oinarrizko osasun laguntza ongi hornitua eta kalitatezkoa duten herrialdeetan osasun adierazle hobeak daudela, dauden baliabideak modu bidezkoagoan banatzen direla herritarren artean eta osasun sistemak askoz ere efizientea goak izaten direla.

Kalitatezko oinarrizko osasun laguntza bat izateko arazo handienetako bat da urriak direla herritarrei laguntza egokia ematea bideratzen duten baliabide material, pertsonal eta antolamenduzkoak. Sintoma kezkarri batzuk antzeman izan dira: profesional bakoitzari atxikitako gaixoak gehiegi izatea eta gaixo horientzako denbora gutxi izatea, eta profesionalak beren lanak –eta berariaz, beren gaurkotzearekin eta prestakuntzarekin loturiko jarduerak– egiteko denbora gutxi izatea. Esan denez, Espainian mediku bakoitzak 1.500 gaixo artatzen ditu, batez beste; aldiz, Nafarroako profesional batzuek 2.000 baino gehiago dituzte. Hala ere, azterlan batzuen arabera, kopuru egokia ez litzateke izan behar 1.200 eta 1.300 artekoa baino handiagoa mediku bakoitzeko.

Hori dela eta, beharrezkoa da gure osasun sistema arautzen duen lege esparruan neurri berriak ezartzea, azaldutako arazoak konpontzeko eta botere publikoek herritarrei osasunaren babesaren arloan eman beharrezko laguntzaren kalitatea hobetzeko.

Artikulu bakarra.

Beste artikulu bat gehituko zaio, 57 bis artikulua, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeari. Hona testua:

“57 bis artikulua. 1. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko ditu oinarrizko laguntzaren antolamendu eta kudeaketa arauak. Arau horiek ondoko printzipioen mende egonen dira:

a) Osasun etxeetako kudeaketaren autonomia eta malgutasuna.

b) Talde lana, diziplina anitzetako antolamendu baten barruan.

c) Gauza eta giza baliabideak helburu eta jardueretara egokitzea.

d) Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea eta kontsultak desburokratizatzeke ahaleginak egitea.

e) Informazioa prozesatzeko sistemen, erabiltzaileekin urruneko komunikazioa ezartzeko bideen eta teknologia diagnostiko eta terapeutiko berrien erabilera bultzatzea.

f) Kalitatearen adierazle eta kontrolak ezartzea.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira ondoko helburuak lortzeko neurriak:

a) Osasun etxeetako profesionalak artatu beharrezko gehieneko erabiltzaile kopurua ezartzea, arretarik egokiena ziurtatzeko.

Profesional bakoitzak artatu beharrezko gehieneko erabiltzaile kopurua ez da izanen inolaz ere 1.400 osasun txartel baino gehiagokoa helduen kasuan, ezta 800 txartel baino gehiagokoa pediatrian.

b) Erabiltzaile kopuru egokiena ezartzea oinarrizko osasun barruti bakoitzerako, eta kopuru hori gainditzen denean, barrutiak berrikusteko prozedura hastea.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira beharrezkoak diren neurriak oinarrizko laguntzako profesionalak, beren lanaldiaren barruan, birziklatze, gaurkotze eta etengabeko prestakuntzako jarduerak egin ahal ditzaten, jarduera horien zati bat taldean egitea ahalbidetzeko, baita, halaber, lan ordutegitik kanpo egiten dituzten prestakuntza jarduerak sustatzeko ere.

Lehen xedapen gehigarria

Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak oinarrizko laguntza garatzeko plan berezi bat, osasun planaren osagarria, prestatu eta Nafarroako Parlamentura bidaliko du. Plan horretan oinarrizko laguntzaren egoeraren azterketa jasoko da, baita beste alderdi batzuk ere, hala nola lehentasunak, helburuak eta garatu beharrezko programak, metodologia eta planaren ebaluazioa, kronograma eta entitate arduradunak, eta planean jasotako ekintzak betetzeko beharrezkoak diren baliabideen balioespena.

Bigarren xedapen gehigarria

57 bis artikulua 2. idatz-zatiak aipatutako gehieneko zenbakiak ezartzen ez diren bitartean, profesional bakoitzeko ondoko kupoak aplikatuko dira hiri barruko eta hiri inguruko eskualdeetan:

- 1.400 osasun txartel, helduen kasuan.
- 800 osasun txartel, pediatria arloan.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko arauak emanen ditu urtebeteko epean.

Azken xedapenetako bigarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek 2007ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, edo Nafarroako Aldizkari Ofizialean egun hori baino beranduago argitaratuko balitz, argitaratu eta biharamunean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepide mapa” egin dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ‘gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepide mapa’ egin dezan.”

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Beharrezkoa da administrazio publikoek behin betikoz sustatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasun prozesua, emakumezkoek jasaten duten bazterkeria errealarekin amaitzeko.

XXI. mendean, Nafarroako emakumeak gizonezkoen atzetik daude oraindik eskubideei dago kienez, eta, hori dela eta, beharrezkoa da familia bizitza lanarekin uztartzea ahalbidetuko duten formula eraginkorrak bilatzea, baita gizonak uztartze horretan parte hartzea ere.

Familia bizitza lanarekin uztartzeko zailtasunak, estereotipo eta ordainketa eta ebaluazio sis-

tema sexistekin batera, emakumeek lan merkatuan izan beharreko erabateko garapena geldiarazten duten faktoreak dira oraindik ere.

Seme-alabei laguntza emateko zerbitzu gehiagoren eta hobeen beharra, lanaren antolamendu moldagarri eta berritzaileagoaren beharra eta berdintasun politika egokia eta eraginkorragoen beharra dira administrazioak gaur egun bere gain hartu behar dituen beharrezkoak batzuk.

Estatistikako Institutu Nazionalak eta Europako Batzordeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz eginiko azterlan batean jasotako datuek hauxe erakusten dute:

– Espainian, emakumezkoek jasotzen duten lansaria gizonezkoen jasotzen dutena baino % 40, 6 txikiagoa dela, batez beste. Horren arrazoi nagusia da emakumeek okerren ordaindutako lan-bideetan aritzen direla.

– Lansariekin lotutako bazterkeria hori lan sektore guztietan eta prestakuntza maila guztietan gertatzen da.

– Familia bizitza eta lana uztartzeko dituzten zailtasunen ondorioz lanpostua uzten duten emakumeen kopurua oso handia da (380.000).

– Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen % 40k baino gehiagok hezkuntzaren eta administrazio publikoaren arloetan egiten dute lan.

– Lanaldi partzialeko lanak emakumezkoen enpleguaren % 32 baino gehiago egiten du; eta horrek, berriz, lanaldi partzialeko lan osoaren % 80 egiten du.

– Delituen biktimen % 55,5 emakumeak dira (baita sexu erasoen biktimen % 89 ere).

– Emakumezkoen artean pobrezia tasa handiagoa da (emakume bat buru duten familien % 43,3k urteko 14.000 euro baino gutxiago irabazten

dute, gizon bat buru duten familien % 29aren aldean).

– Funtzio publikoan, langileen % 52,7 emakumezkoak dira, baina administrazioko goi karguen % 27 soilik betetzen dituzte.

Ez da onargarria populazioaren erdiari beste erdiari baino tratu okerragoa ematen jarraitzea. Botere publikoek beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte sexu arrazoiengatik egiten diren bereizketak deuseztatzeko eta gizonzkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun erreala eraginkorra izan dadin.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Nafarroako gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errepide mapa” egin dezan, ondokoak kontuan hartuta:

1. Mendekotasuna duten pertsonen laguntza emateko Nafarroako zerbitzu sarea zabaltzea eta hobetzea (zaharrentzako, lehen haurtzarorako, mendekotasuna duten pertsonentzako eta abarrentzako laguntza).

2. Orik 3 urtera bitarteko haurtzarorako haur hezkuntzako ikastetxe publikoen eskaintza gizartearen dagoen eskaerari egokitzea.

3. Lanaren antolamendua familia bizitza eta lana uztartzeak dakartzan beharrezkoak diren egokitzeko ahalbidetzen duten lan eta gizarte arloko poli-

tikak abian jartzea eta gizonen eta emakumeen uztartze horretan parte har dezaten sustatzea.

4. Administrazioak enpresetan berdintasunerako planak eta neurriak presta daitezkeen bultzatzea.

5. Genero indarkeriaren aurkako plan integral bat prestatzea, administrazio, erakunde eta botere publiko guztien parte hartze eta lankidetzarekin.

6. Nafarroako udal eta/edo mankomunitateetan berdintasunerako teknikariak kontrata ditzaten sustatzea, berdintasunerako politikak toki administrazioaren bidez orokortze aldera.

7. Balioetan hezterari eta hezkidetzari buruzko programak garatzea derrigorrezko irakaskuntzako maila guztietan.

8. Beharrezkoa da aukera berdintasunerako foru planak lana, etxebizitza, familia, hezkuntza, aisialdia, parte-hartzea eta beste hainbat arlotan berdintasuna lortzeko neurri eraginkorrak jasotzea, baita beharrezkoak eta nahikoak diren baliabidea jartzea ere, neurri horien eraginkortasuna ziurtatzeko eta aitortzen diren eskubideak bermatzeko.

9. Nafarroan bizikidetzaren behatoki bat sortzea, administrazio publikoen, gizarte-erakundearen eta alderdi politikoen partaidetzarekin, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Eleduna José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko gastu publikoa handitu dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko gastu publikoa handitu dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Oinarrizko osasun laguntzarako bideratutako aurrekontu funtsak ez dira nahikoak osasun sistemari garatutako gizarte batean dagozkion ezaugarriez hornitzeko, laguntzari, prebentziori eta osasunaren sustapenari dagokienez.

Familia medikuntzako kontsultetan dauden astebeteko atzerapenek, edo pediatriako kontsultetan dauden 4 eguneko atzerapenek herritar guztiek oinarrizko laguntzara izan behar duten irisgarritasunaren deuseztea dakarte. Atzerapen horiek gertatzen dira, nagusiki, mediku bakoitzak osasun txartel kopuru handia duelako esleitura.

Bestalde, Nafarroako ospitaleek osasun sistema publikotik jasotzen dute finantzaketaren zatirik handiena, baina, hala ere, egiturazko gabeziak dituzte kudeaketaren arloan (gerentzialismoak ez du onartzen langileen parte-hartzerik), baita antolamendu ereduaren eta praktika klinikoaren beraren arloetan ere.

Azpiegituren defizita eta baliabideen kudeaketan eta integrazioan dauden gabeziak dira ospitale publikoak kolapsatzen dituzten itxaron zerrenda luzeen ardatzak; izan ere, 35.000 nafar baino gehiago daude itxaron zerrendaren batean.

Laguntza soziosanitarioa ez dago garatuta Nafarroan eta, horrenbestez, baliabide publiko urriak bideratzen dira horretarako; horrek erakusten du politika eta baliabide publikoen artean dagoen koordinazio falta. Mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien laguntzari buruzko araudi berria gizarte, aurrekontu eta kudeaketa-erronka bat da, eta Nafarroak bere gain hartu behar du lehenbailehen.

Denok dakigu egoera horrek baduela onuradun zuzen bat; hain zuzen, osasun sistema pribatua, zeinak mota guztietako presioa egiten duen bere

irudia hobetzeko eta bere burua sistema publikoaren ordezkotik gisa aurkezteko.

Urtetik urtera handiagoa den farmazia gastuaren arrazionalizazio eta kontrol eza dago –hazkunde garbia osasun arloko aurrekontua baino handiagoa da–, eta sendagaiak errezetatzen dituzten profesionalakiko gauzatzen den politika negargarria da; izan ere, farmaziaren arloko industriaren eskuetan uzten du bere produktuei buruzko informazioa, horrek dituen arriskuekin. Bestalde, sendagaien finantzaketa baimentzen da, haien baliagarritasun terapeutikoa kontuan hartu gabe, eta ez dira kalitatezko irizpideak ezartzen sendagaiak errezetatzeko.

Osasun publikoa ez da kontuan hartzen gure osasun sistemari: osasuna sustatzeko, prebentziorako eta osasunerako hezkuntzarako erabiltzen diren baliabideak oso urriak dira, eta ezin dira alderatu herrialde garatuenetan erabiltzen dituztenekin.

Herritarrak osasun sistemaren partaide gisa kontuan ez hartzea da osasun publikoak gainerako arazoez gain duen arazo bat. Herritarra osasun sistemako bezerotzat hartzen da soilik, osasunaren arloko sektore publikoan gaur egun gauzatzen ari den politika merkantilistaren gainbeheran.

Hori dela eta, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du osasun publikora bideratzen den gastua handitu dezan pixkanaka hurrengo 5 urteetan, gaur egungo barne produktu gordinaren (BPG) % 4,6tik % 6ra iritsi arte.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du hurrengo ekitaldietan administrazio zentraletik osasun sistema publikoaren defizita dela-eta jasoko duen dirua –20 eta 30 milioi euro artean urteko– osasun sistema publikoan inbertsioak egiteko bidera dezan.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxeak zabal ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxeak zabal ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Oinarrizko osasun laguntzan egiten den inbertsio publikoaren egoera guztiz defizitarioa da. Plangintza eta kudeaketa faltaz gainera, aurrekontu zuzkiduren eza daukagu, eta horiek direla-eta osasun etxe batzuk eraiki edo ekipatu gabe daude, edo gabezi handiak dauzkate.

Tamalgarría da Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxeak ez irekitzea. Plangintza ekonomikorik ez dagoenez, duela hilabete asko eraikita egon arren, itxita jarraitzen dute bi osasun etxe horiek, haiek ekipatzeko aurrekonturik ez dagoelako. Politika oker hori dela eta kalte egiten ari zaie eta osasun laguntza txarra ematen

osasun laguntza hobea merezi duten milaka herritarri.

Plangintza falta bera gertatzen da Iruñerriko auzoetako urbanizazio berrietan. Gaur egunean, Nafarroako osasun administrazioak ez du ez dirurik aurrekontuetan ez konpromiso seriorik, ez eta denboraren eta ekonomiaren plangintzarik, Iruñeko Buztintxuri auzoan eta Eguesibarreko Sarrigurenen osasun etxeak eraikitzeko. Egoera hori dela eta, milaka herritarrek geroraturik ikusiko dute behar duten kalitatezko osasun laguntza.

Sanduzelaiko, Antsoingo eta abarretako osasun etxeetatik arazoak berri eman izan diote Osasun kontseilariari: foru gobernuak ez die erantzunik eman osasun etxeetako masifikazioari, azpiegituren gabeziari eta espazio faltari, eta horrek berekin ekarri du kalitate arazoak gertatzea osasun etxe horietara jotzen duten milaka herritarri eman beharreko osasun laguntzan.

Hori dela eta, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxeak berehala ireki ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrean has ditzan Buztintxuriko (Iruña) eta Sarrigurengo (Eguesibar) osasun etxe berriak eraikitzeko tramiteak; eta Parlamentuari igor diezaion, hiru hileko epean, bi osasun etxe horiek eraikitzeko denboraren eta ekonomiaren plangintza.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sanduzelaiko eta Antsoingo osasun etxeak hobetu ditzan.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mutiloa-Badostainen kontsultak arratsaldeko txandetan zabaltzeko konpromisoa har dezan, herritarrei arreta egiteko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuia premiatzen da Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mutiloa-Badostainen kontsultak arratsaldeko txandetan zabaltzeko konpromisoa har dezan, herritarrei arreta egiteko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2006ko otsailaren 16an, Iruñerriko osasun etxeen premiak eta baliabideen optimizazioa zirela-eta Osasun kontseilariari aurkezturiko jabeldura bati erantzun zitzaion esanez auzoetako oinarriko osasun laguntzari dagokionez epe laburreko eta epe luzeko plangintzak egiten ari direla.

Emandako informazioaren arabera, Buztintxuriko biztanleak -903 pertsona bizi dira bertan-Sanduzelaiko osasun etxera joaten dira. Sanduzelaiko osasun etxeak hemezortzi kontsulta dauzka;

horietatik hamasei arratsaldez libre daude eta beste bi goizez.

Sarrigurengo biztanleei, hasiera batean, Mendillorri emanen zaie osasun laguntza. Bertan, arratsaldez hamazazpi kontsulta daude libre eta goizez hiru.

Mutiloa-Badostaingoa da beste hirigintza-garapenetako bat. Eskualde horretako kontsultategian arratsaldeko zerbitzua eskain daiteke.

Iruñerrian, oro har, populazioa hazten ari da, eta horri berehalako erantzuna eman behar zaio. Gure proposamenarekin konponbidea eman nahi diogu egoera horri. Egia esan, libre dauden kontsultak zehaztu baino ez dugu egin, zerbitzua areagotu ahal dadin.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du hiru hilabeteko epean Nafarroako Parlamentuari aurkez diezaion data eta aurrekontu-ebaluazioa duen konpromiso bat, kontsultak arratsaldeko txandetan zabaltzeko Buztintxurin, Sarrigurenen eta Mutiloa-Badostainen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du proposamenean zehatz dezan zenbat sendagile, zenbat erizain eta zenbat administrari kontratatu behar diren osasun etxeei atxikitako pertsonen laguntza emateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Legebiltzarrari aurkezten dion proposamenean kontratu motak eta haien iraupena zehatz ditzan.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako eta Errioxako jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defenda dezan.

JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTU DU

José Luis Etxegarai Andueza foru parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako eta Errioxako jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defenda dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko eledun José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren arabera, Nafarroa eta Errioxa jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defendatzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

Hemendik gutxira, arau bidez garatuko da, Europa mailan, haritzaren erabilera ardoak egite-rakoan.

Haritzez eginiko ontziak erabiltzea deitura geografikoa duten mahaiko ardoak eta eskualde jakin batean ekoiztutako kalitateko ardoak zahartzeko prozesuetarako bide bakarra da. Horren ondotik, ardo horiei deitura tradizional osagarriak ematen zaizkie, produktuaren bereizgarri; deitura horiek, izan ere, Europako arauetan erregulatuta daude, bereziki 753/2002 (CE) Erregelamenduko 23. eta 24. artikuluetan.

Kontsumitzaileari behar den informazioa eman behar zaiola uste dugu, eta hura nahas dadila saihestu behar dela, egiteko prozesuan haritza erabili den ardoen eta bestelako zahartzeko prozesuak izan dituzten ardoen arteko lehia zintzoa bermatuz.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu jatorriaren arabera identifikatzen diren ardo ekoizleen interes legitimoak babestea, bereziki Nafarroa eta Errioxa jatorrizko deitura dutenenak, eta horregatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena, eztabaida eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Irizpide gisa defenda dezan eta, kasua bada, arautu dezan haritza erabiliko dela soilik deitura geografikoa ez duten mahaiko ardoak egiteko, eta, hala bada, horixe adieraziko dela nahitaez etiketan.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan.

AKATS ZUZENKETA

2006ko otsailaren 22ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko gaztelaniazko bertsioan ondoko mozioaren erretiratzea argitaratu zen: "moción por la que se insta al Gobierno de Navarra a incluir la variable sexo en las estadísticas sobre salarios del Instituto de Estadística de Navarra"; eta horren ordeztituak hauxe esan behar zuen: "moción por la que se insta al Gobier-

no de Navarra a incluir la variable de sexo en todas las estadísticas que realice".

Ofizioan aipatzen zen mozioa Osoko Bilkuran erretiratu zela, eta mozioa erretiratutzat jo zuenak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordea izan zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria. Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, erradiologia mugikorreko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea erradiologia mugikorreko zerbitzua pribatizatzeari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak, beste proposamen batzuen artean, Nafarroako Ospitaleko zerbitzuak pribatizatzeke asmoa duela dirudi. Pribatizatzeke interes hori ez dago soilik lotua garbiketa zerbitzuekin; dirudienez, baloratzen ari dira erradiografien

ekipo mugigarriak bezalako zerbitzu berriak ere pribatizatzea.

Gu ados egonen gara zerbitzu berri horrekin –haren bidez, itxura guztien arabera, sendagileek erabakiak hartzeko behar dituzten proben eskaria hobetu eta arindu eginen da–, baldin eta Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko zerbitzu publikoa bada.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak ondoko galderari erantzutea nahi dugu:

Ba al du gobernuak asmorik Nafarroako Erradiologia Mugikorreko Zerbitzua bezalako baliabi-deak jartzeko?

Baldin eta zerbitzu hori abian jartzeko asmoa baldin badu, publikoa eta Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpekota izanen da, ala pribatizatzeke asmoa dauka?

Aurreikusia al du Nafarroako Gobernuak beste osasun zerbitzu batzuk era mugikorrean Nafarroan barna eskaintzea?

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Zentro Onkologikoa eraikitzeke eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Zentro Onkologikoa eraikitzeke eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

2006ko urtarrilaren 11n egin nizekion galderei Osasun kontseilariak eman zien erantzuna jaso dut, eta horietako bakarrari ere ez dionez erantzun, galdera horiek errepikatu beharrean nago, parlamentaria naizen aldetik dudan eskubidearen araberako informazioa lortu ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak, 2001eko ekainaren 11n, plan onkologikoa onetsi zuen.

Planaren funtsezko osagarria zentro onkologikoa eraikitzea zen. Heldu beharreko gai garrantzitsuena eta lehentasunezkoa zen erradioterapiaren arloa. Planak jarduteko kronograma eta zenbatespen ekonomiko bat aurreikusten zituen.

Xede horretarako 2003., 2004. eta 2005. urteetan aurrekontuetan jasotakoaren eta betetakoaren jarraipena egiten bada, honako emaitza lortuko dugu:

Kontusailaren izena	2003. urtea		2004. urtea		2005. urtea	
	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa
Ikerketa eta tratamendu onkologikoen unitatearen jarduerak	2.247.000 euro	1.137.000 euro (% 50)				
Plan onkologikoko obrak			2.542.000 euro	139.000 euro (% 25,6)		
Onkologiarako ekipamendua			1.026.000 euro	44.000 euro (% 6,76)		
Berritze teknologikoa			1.325.000 euro	0 euro (% 0)		
Plan onkologikoko obrak					2.864.200 euro	173.727 euro (% 9,41)

Hiru urteetan aurrekontuetan jasotakoa guztiatik, 10.004.200 eurotik, 1.493.727 euro baizik ez dira bete; hau da, % 1,49.

Kontuan hartu behar da 2001eko plan onkologikoaren beraren arabera, Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala zaharkiturik zegoela, eta ONOZeko zuzendari kudeatzailearen 1796/2001 ebazpenaren bidez erradioterapiarako ekipamendua erosi zela, hau da, hiru azeleragailu lineal; kontuan hartu behar da, halaber, 2006an gaudela, eta honezkero Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala behin eta berriz matxuratu dela. Hori guztia dela eta, hona galderak:

2.- Non daude zehazki 2001ean Varian Medical Systems Ibérica SLri erositako hiru azeleragailu linealak?

2.- Adjudikazio horrek, guztira, 4.207.084 euroko kostua izan zuen. Zenbat eta zein urtetan ordaindu da?

3.- Noizko aurreikusten zen plan onkologikoan haiek instalatzea? Plan onkologikoaren kronograma nahi dugu, gobernuak 2001ean onetsitakoa.

4.- Egin al da plan horren aldaketarik? Baiezkoan, egindako aldaketak eta haiek onetsi zireneko gobernuaren saioa ezagutu nahi ditugu.

5.- Nafarroako Parlamentuak aurrekontuetarako onetsitakoaren eta Nafarroako Gobernuak 2003., 2004. eta 2005. urteetan betetakoaren artean dagoen aldeari buruz, hona galdera:

– Zein izan dira aurrekontuaren betetze txiki horren arrazoiak?

– Zertarako erabili dira, azkenean, aurrekontuetan jasotako diru kopuru horiek, zure erantzunaren arabera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste beharrizan batzuetarako bideratu zirenak? Aurrekontuetan egindako aldaketak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, ikastetxe, herri eta ereduaren arabeko matrikulazio datuei buruzkoa.

Ez du ematen deialdi horren aipatu xedapena aipatutako legeriari ez eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak iragarritako asmoei egokitzen zaizkienik. Are harrigarriagoa da Nafarroako Aldizkari Ofizialaren ale berean argitaratzea Gizar-te Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren otsailaren 20ko 51/2006 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita gizarteratzearen esparruan aritzen diren irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen 2006. urteko deialdia; izan ere, deialdi horren 5.2 oinarrian Dirulaguntzei buruzko Foru Lege Orokorreko 13.8 artikulua eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari buruzko Foru Legeko 9.4 artikulua aipatzen dira, eta esaten da horien indarrez herritarrek ez dituztela oinarri horretan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko haiei buruzko ziurtagiriak egitea foru erkidegoko administrazio organoei badagokie edo agiriak jadanik administrazio horren esku badaude, betiere aipatu agiritan inolako aldaketarik egin ez bada, eta haien orde adierazpen bat aurkeztu ahalko dela, entitatearen ordezkariak sinatua, inguruabar hori azalduz.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Aipatu ebazpenean Foru Komunitateko administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzen zaie interesa duten interesdunei, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluko f) letrak ezartzen duenaren urraketa agerikoa eginez. Zergatik?

Ba al dago horri buruzko irizpide bateraturik foru erkidegoko administrazioan, praktikan departamentu batzuetatik besteetara eskakizunak hainbeste alda ez daitezen?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, “Xavier-arte” erakusketarako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, “Xavier-arte” erakusketarako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du Frantzisko Xabierkoari buruzko ikonografiarekin eta dokumentazioarekin egingen den “Xavier-arte” erakusketak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Nafarroako Museoan eginen den grabatu japoniarrei buruzko erakusketarako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Nafarroako Museoan eginen den grabatu japoniarrei buruzko erakusketarako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra eginen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du martxoaren 9tik apirilaren 18ra bitarte Nafarroako Museoan eginen den grabatu japoniarrei buruzko erakusketak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, "El mundo alrededor de Javier" izeneko kongresuaren antolatetari eta hartarako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, "El mundo alrededor de Javier" izeneko kongresuaren antolatetari eta hartarako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra eginen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du 2006ko martxoaren 27tik apirilaren 2ra bitarte eginen den "el mundo alrededor de Javier" izeneko kongresuak? Kongresu horretan hainbat unibertsitate dira parte hartzeak: Nafarroako Unibertsitatea, Deustukoa, Alcalákoa, Complutense, Autónoma de Madrid, Granadakoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Sala-

mancakoa, Tokioko Sophia Unibertsitatea, eta Lisboa-koa.

Zein enpresari esleitu zaio kongresuaren antolaketa?

Nola egin da adjudikazioa?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetari buruz Mexiko, Goa eta Tokion egitekoak diren kongresuen aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetari buruz Mexiko, Goa eta Tokion egitekoak diren kongresuen aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetari buruz Mexiko, Goa eta Tokion egitekoak diren kongresuetarako Nafarroako Gobernuak eman behar duen laguntzak ?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, "Francisco de Javier. Regreso y Encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia" izeneko kongresuaren aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, "Francisco de Javier. Regreso y Encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia" izeneko kongresuaren aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jar-duera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean,

besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du Aloban GKEk sustatu eta 2006ko azaroan egitekoa den "Francisco de Javier: Regreso y encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia" izeneko kongresurako Nafarroako Gobernuak eman behar duen laguntzak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, "Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón" izeneko dokumentalaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andrearekin egindako galdera, "Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón" izeneko dokumentalaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jar-duera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du "Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón" izeneko dokumentalaren ekoizpenak? .

Dokumentalak egiten dituen zein enpresari esleitu zaio lan honen ekoizpena?

Nola egin da adjudikazioa?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, “La huella universal de Francisco de Javier” ikus-entzunezkoaren aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, “La huella universal de Francisco de Javier” ikus-entzunezkoaren aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarduera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez, frantsesez, italieraz, portugesez eta japonieraz egindako “La huella universal de Francisco de Javier” izeneko ikus-entzunezkoaren ekoizpenak?

Ikus-entzunezkoak egiten dituen zein enpresari esleitu zaio lan honen ekoizpena?

Nola egin da adjudikazioa?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, RTVEko orkestraren ekainaren 30eko kontzerturako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, RTVEko orkestraren ekainaren 30eko kontzerturako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarduera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zer aurrekontu du ekainaren 30ean Frantzisko Jatsukoaren Aretoan egingen den RTVEko orkestraren kontzertuak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, “San Francisco Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, “San Francisco Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarrizko lerroak ezartzen dira. Jarduera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du Ignacio Arellanok zuzendu eta Carlos Matak koordinatu duen “San Francisco Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” ikus-entzunezkoaren ekoizpenak?

Ikus-entzunezkoak egiten dituen zein enpresari esleitu zaio lan honen ekoizpena?

Nola egin da adjudikazioa?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, V. mendeurrenaren aipamena egiten duten orrialde-markagailu egutegidunen ediziorako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, V. mendeurrenaren aipamena egiten duten orrialde-markagailu egutegidunen ediziorako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarrizko lerroak ezartzen dira. Jarduera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du V. mendeurrenaren aipamena egiten duten 30.000 orrialde-markagailu egutegidunen edizioak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, liburutegi publikoetan Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio-guneak paratzeko aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, liburutegi publikoetan Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio-guneak paratzeko aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du 2006ko apiriletik abendura bitarte liburutegi publikoetan Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio-guneak paratzek?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Xabierren turismo-bulego bat instalatzearen kostuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Xabierren turismo-bulego bat instalatzearen kostuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbat kostatzen da mendeurreneko urtean Xabierren turismo-bulego bat kokatzea?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, V. mendeurrenari buruzko publizitate-kanpaina orokorrerako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, V. mendeurrenari buruzko publizitate-kanpaina orokorrerako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan "Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa" izeneko programaren oinarrizko lerroak ezartzen dira. Jarraian horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra eginen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua dute mendeurrenaren ekitaldiak sustatzeko asmoz egin behar diren publizitate-kanpaina orokorrak eta ikuskizun edo ekitaldiei buruz berariaz egin behar direnak?

Zein publizitate-enpresari esleitu zaio kanpaina?

Nola egin da adjudikazioa?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, “Javier 2006” web gunearen kostuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, “Javier 2006” web gunearen kostuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbat kostatu da “Javier 2006” web gunea?

Zein enpresari esleitu zaio web gune hori sortzea?

Zein izan dira esleitzeko irizpideak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Xabierren ospatze-urtean zehar guneak eta ekipamenduak prestatzeko aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Xabierren ospatze-urtean zehar guneak eta ekipamenduak prestatzeko aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren espediente osoa ezagutu dugu. Bertan “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak ezartzen dira. Jarraera horiek 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 3ra egingen dira, eta, haien artean, besteak beste, honakoak ditugu: ekitaldi instituzionalak, ekitaldi artistikoak eta sustapen ekintzak, eremuen prestaketak, antolaketa eta koordinazio lanak. Hori guztia dela eta, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

Zenbateko aurrekontua du ospatze-urtean zehar, Xabierren, guneak eta ekipamenduak prestatzeko?

Zein enpresari esleitu zaio gune eta ekipamenduen prestatzea?

Zein izan dira esleitzeko irizpideak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, gora jotzeko errekurtsioak Administrazio Auzitegian behar bezala tramitatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, gora jotzeko errekurtsioak Administrazio Auzitegian behar bezala tramitatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 7.2.d) artikuluan aitortzen denez, herritarrek administrazio egokia izateko duten eskubidearen alderdietako bat da "administrazioak espresuki emandako ebazpena legez ezarritako epean lortzeko eskubidea".

6/1990 Foru Legea garatzen duen Toki entitateen erabakiak eta egintzak aurkatzeari buruzko Erregelamenduko (urriaren 18ko 279/1990 Foru Dekretuaz onetsi zen eta maiatzaren 24ko 173/1999 Foru Dekretuaz aldatu zen) 27.1 artikulua dio Nafarroako Administrazio Auzitegiak sei

hilabeteko epea duela gora jotzeko errekurtsioak ebazteko, errekurtsioa aurkeztu zen egunetik.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak parlamentari honi 2006ko otsailaren 13an emandako datuen arabera, 2004an zehar Nafarroako Administrazio Auzitegiak 3.479 ebazpen eman zituen; horietatik 541 baizik (% 15,55) ez ziren erregelamenduan ezarritako epean eman; 2.938 ebazpen (% 84,55), berriz, epea gaindituta eman ziren. 2005ean, 4.566 ebazpen eman ziren; horietatik, 143 epean eman ziren (% 3,13) eta 4.423 (% 96,87) epez kanpo.

Horretatik ondorioztatu behar da Nafarroako Administrazio Auzitegiak funtzionatzeko duen ohiko modua dela epez kanpo ebaztea eta herritarrei aitorturiko eskubidea, arestian aipatu duguna, urratzea.

Horregatik guztiagatik, ondoko galderari erantzutea eskatzen dut:

Zergatik ebazten dira sistematikoki epez kanpo Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak?

Neurri zehatzen bat ezarri al da egoera horren arrazoiak aurkitzeko?

Zer neurri hartu asmo ditu, asmorik badu, Nafarroako Gobernuak gora jotzeko errekurtsioen tramitazio egokia bermatzeko eta herritarrek administrazioak espresuki emandako ebazpena legez ezarritako epean lortzeko duten eskubidea errespetatzeko?

Iruñean, 2006ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Administrazio Auzitegian aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak epean ebazteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Administrazio Auzitegian aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak epean ebazteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaioten.

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen legearen 115. artikuluan ezartzen denez, gorako errekurtsioaren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez.

Lege beraren 41. artikuluan ezartzen denez, Gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten administrazio-unitateetako arduradunak eta herri-administrazioetako langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule. Arduradun eta langile horiek, bestalde, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte izapideetan sor daitezkeen oztopoak kentzeko, era horretara, interesdunak beren eskubideez bete-betean baliatzerakoan edo bidezko dituzten interesak errespetatzerakoan, eragozpenik, zailtasunik edo atzerapenik izan ez dadin. Hartu beharreko neurriak hartuko dituzte, beraz, prozedurak izapidetzerakoan okerrik ez izateko eta daudenak kentzeko.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 7.2.d) artikuluan aitortzen denez, administrazio egokia izateko herritarrek duten eskubidearen alderdietako bat da "administrazioak espresuki emandako ebazpena lege ezarritako epean lortzeko eskubidea".

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak 2006ko otsailaren 15ean eman zizkidan datuen arabera, 2005ean zehar Nafarroako Gobernuak edo foru erkidegoko administrazioaren beste organo batzuek gora jotzeko 4.410 errekurtsio ebatzi zituzten. Horietatik 594 ebazpen (% 13,47) baizik ez ziren eman legeko epean; 3.816 (% 86,53), berriz, epez kanpo eman ziren.

Lehen emandako datuen arabera, 2000tik 2004ra bitartean, 14.650 errekurtsio ebatzi ziren; horietatik 3.458 bakarrik (% 23,6) eman ziren legeak ezarritako hiru hilabeteko epearen barruan; beste 11.122 (% 75,9) epe hori iragan ondoren eman ziren.

Horretatik ondorioztatu behar da abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak indarra hartu zuen arren –hartatik espero baitzen gai honetan eragin positiboa izatea– eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Legebiltzarreko zegokion batzordean esan zuen arren, 2005eko irailaren 14an, foru lege horren aplikazioa eta koordinazio batzordea abian jartzeak ondorioak eduki beharko lituzkeela administrazio-errekurtsioen tramiteak arintzeko, egoerak ez du hobera egin; are gehiago, 2005eko ekitaldian emaitzak nabarmen okerragoak izan dira aurreko bosturtekoan baino.

Horregatik guztiagatik, ondoko galderari erantzutea eskatzen du:

Nola azaltzen du Nafarroako Gobernuak 2005ean egoerak hobera ez, okerrera egin izana gora jotzeko errekurtsioak ebazteko epeari dagokienez?

Zer neurri hartu asmo ditu, asmorik badu, Nafarroako Gobernuak gora jotzeko errekurtsioen eta bestelako administrazio errekurtsioen tramitazio egokia bermatzeko eta herritarrek administrazioak espresuki emandako ebazpena lege ezarritako epean lortzeko duten eskubidea errespetatzeko?

Neurriren bat hartu al da espediente horren ebazpenean eta izapideetan erantzukizuna duten unitate administratiboaren titularrekin eta administrazio publikoaren zerbitzuko langileekin, ebazteko epeak zergatik ez diren betetzen egiaztatu ahal izateko edo betetze hori bideratu ahal izateko?

Iruñean, 2006ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako 2006ko otsailaren 11n kargua utzi zuen kidearen ordezkari Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kidea hautatzeko arauak.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakariak baimena eskatu dio Nafarroako Parlamentuari Javier López de Muniáin Renedo jauna ordeztuko duen kontseiluko kidea izenda dezan; izan ere, azken horrek, Parlamentuak hautatu baitzuen, kargua utzi du Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoan Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko xedapen iragankorrean aurreikusitako zozketa egin eta ondoren.

Aipatu foru legeko 23.1.a) artikulua araberara, betiere martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legean erabilitako testuaren arabera, "berritze partzialtan foru parlamentari bakoitzak gehienez ere izangai baten aldeko botoa eman ahal izanen du". Arau hori garatuz eta 2004ko otsailaren 23an eta 2005eko ekainaren 6an onetsitako erabakiei jarraituz, bidezkoa da erabaki honek xede duen ordezte prozedurari buruzko arau batzuk onestea.

Horrenbestez, legelari nagusiaren txostena ikusita eta Erregelamenduko 37.1.9.a artikuluari jarraituz, honakoa ERABAKI DUGU:

Lehena. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako 2006ko otsailaren 11n kargua utzi zuen kidearen ordezkari Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kidea hautatzeko ondoko arauak onestea:

1. Parlamentu-talde bakoitzak hautagai bat aurkeztu ahal du; betiere, aipatu 18/2001 Foru Legeko 23.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak izan beharko dute.

2. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idatziz aurkeztuko dituzte hautagaiak parlamentu-taldeen, eta, idatzi horretan, proposatutako hautagaien onarpena jaso beharko da. Proposatutako hautagaiak 18/2001 Foru Legeko 25. artikuluan aipatzen den bateraezintasunik ez dutela erabaki ahal

izateko, proposamen-idatziei aipatu bateraezintasunik ez dutelako aitortzea edo egiaztagiria erantsiko zaie, hautagaien egina.

3. Parlamentu-taldeek hurrengo martxoaren 24ko 12:00ak arteko epea izanen dute Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko.

4. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaien baldintzak betetzen ote dituzten erabakitzeari ekingo dio Mahaiak, eta ondoren, hala bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

5. Hautagaiak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak jarritako egunean, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko lan bilera batean agertuko dira, parlamentariak haien merezimenduak eza-gutu ditzaten.

6. Kontseiluko kidea Osoko Bilkuran eta isilpeko bozketaren bidez hautatuko da.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakar baten izena jarri ahal du txartelean.

8. Mahaiak boto-kontaketa egin eta boto gehien eskuratu dituen hautagaia hautatu dela aldarrikatuko du.

9. Berdinketarik badago, boto kopuru berbera lortu dutenen arteko beste bozketa baten bidez ebaztuko da. Berdinketak bere horretan segitzen bada, hurrenez hurreneko bozketak egingen dira boto kopuru berbera duten hautagaien artean berdinketa desegin arte.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Izendapen proposamena

Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts –bi txanda irekikoak eta bat igoera txandakoa– oposizio bidez betetzeko deialdia bukatu da. Deialdi hau Ganberako Lehendakariaren 2005eko maitzaren 25eko ebazpenaren bidez onetsi zen eta 2005eko ekainaren 3ko 66. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2005eko ekainaren 2ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Epaimahai kalifikatzaileak, deialdiko 72 oinarriak xedatutakoarekin bat, erabaki hauek jakinarazten ditu:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts –bi txanda irekikoak eta bat igoera txandakoa– oposizio bidez betetzeko deialdia gainditu duten izangaien zerrenda onestea:

Txanda irekia, gaztelaniazkoa:

- | | |
|----------------------------------|-------------|
| 1.- Marticorena Chapa, Xabier I. | 79,57 puntu |
| 2.- Balduz Gil, Jorge | 78,30 puntu |

Txanda irekia, euskarazkoa

- | | |
|---|-------------|
| 1.- Martincorena Machain,
Miren Eburne | 76,33 puntu |
| 2.- Soto Cotorro, Irune | 62,28 puntu |

Igoera txanda:


- | | |
|---|-------------|
| 1.- Equiza Maquirriain, M ^a Jose | 55,59 puntu |
|---|-------------|

Bigarrena. Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igortzea ondoko izendapen proposamena auditoretzako teknikari lanpostuetarako: txanda irekian, Xabier I. Marticorena Chapa jaunaren alde; txanda irekian euskaraz jakitea berarizko betebeharra duen lanpostuan, Miren Eburne Martincorena Machain andrearen alde; eta igoera txandan, M^a Jose Equiza Maquirriain andrearen alde; aipaturiko txandetan puntuaziorik handiena lortu duten izangaiak izan direlako.

Eta hau guztia jakinarazten da aipaturiko oinarriaren xedatutakoarekin bat.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Epaimahaiaren lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	